



Gertu dago
dena biharko
presoan aldeko
manifestaziorako

■ Iruñeko 20 gazte
taldek, BAKek eta
beste hainbat
erakundek bat
egin dute
deialdiarekin • 8-9

europa

■ IRAk Irlandako eta
Erresuma Batuko
gobernuei eskatu die
unionistei betoa
kenarazteko

IRAk, agiri baten bidez, Ir-
landako eta Erresuma Batu-
ko gobernuei eskatu die
«unionistei bake prozesuari
ezarritako blokeoa kenaraz-
teko». Alderdi nazionalistak
ere etsitzen hasiak dira pro-
zesuaren geldotasunaz,
atzo eginiko adierazpenen
arabera. • 17

■ Ontzi bat 'Marero'-ren
arrastoak agertu
diren eremua
arakatzen ari da • 13

ekonomia

■ Iparlatek Iruñeko
lantegia bereizi eta
Lacteos de Navarra
sortuko du • 15

■ LABen greba
iragarpenak enplegu
hitzarmena arriskuan jar
dezakeela dio
Confedebaskek • 16

kultura

■ 'Hitza bil' ipuin jaialdia
antolatu dute Ipar Euskal
Herriko hainbat kultur
elkartek • 33

Jaurilaritzako sailburuen kargu hartzea

Ibarretxek Madrilgo gobernuari eta ENAMi, biei hartu die kargu

Sailburuek zina egin ostean erronka bakea lortzea izango dela azpimarratu du

■ JAURLARITZA BERRIKO sailburuek
atzo egin zuten karguaren zina, eta ondo-
ren Juan Jose Ibarretxe lehendakariak hitz
batzuk egin zituen gobernu-
aren erronkak azaltzeko. Bakea
izango dela erronka behinena
nabarmendu zuen lehendaka-
riak, eta bideari ekiteko bi bal-
dintza azpimarratu zituen:
presoak Euskal Herriratzea,

«legea betetzea» batetik, eta bestetik PPko
kideen aurkako mehatxuak direla-eta
ENAMi dei egin zion: «Ez da ezer eraikitzen

intentsitate handiko edo gutxiko atenta-
tuekin, ezta PPko jendea mehatxatuz ere».
Halaber, bakea ez dela soilik biolentzia eza

adierazi zuen Ibarretxek, «gi-
zartea eraikitzea baizik». Au-
rrez, bederatzi sailburuek be-
ren karguaren zina egin zuten.
Hamargarrenak, Patxi Orma-
zabalek, ezin izan zuen Gastei-
zen izan. • 6-7

Juan Jose Ibarretxe

«Presoak gerturatzea legea
betetzea da, eta horrekin ezin
da joko politikorik egin»



JOSEBA OLALDE

Goitik behera eta ezker eskuin Alvaro Amann, Mari Karmen Garmendia, Sabin Intxaurre, Iñaki Azkuna, Iñaki Gerenabarrena, Javier Balda, Idoia Zenarruzabeitia, Juan Jose Ibarretxe, Inazio Oliveri eta Josu Jon Imaz. Patxi Ormazabal falta da, bidai batean dagoelako.



Andres
Pastrana
presidentea
eta FARCEko
hiru buruzagi
elkarriketen
inaugurazio
ekitaldian.

RICARDO
MAZALAN / AP

FARCEk eta Pastrana
presidenteak bakea lortzeko
«konpromiso eta ahalegin
sendoa» egingo dute

*Tirofijo, gerrillako buruzagia, ez da
elkarriketa mahaian izan • 19*